

4.º Izendegia. Onetzaz itz egin degu. Lakonbe jaunak, Ruso-Japon ta beste izkuntzetako izenak, Parisen bilduta, ekafi litzaizkiguke.

5.º Schuchard-Sari'rako lan bakaña eldu da : au aztertzeke batzorde bat izendatu da : A. Intza, Intzagarai ta Ormaetxea.

6.º Kisaldatzea egin da, egiteko garai bada ta. Autarkitara jorik auxe eldu zaigu :

Euskaltzainbururako : Azkuek, 7, utsean bat.

Iker-sailbururako: Kanpionek, 6; Eguskitzak, 1; Altubek beste, 1.

Jaur-sailbururako : A. Intzak, 7; Elissaldek, 1.

Zadorlaritzarako : Intzagarai'ek, 7; Olabidek, 1

Gutuntzaintzarako : Lakonbek, 8.

Diruzaitzarako : Altubek, 6; Elissaldek, 1; Lakonbek-beste, 1.

Beaz, beste bi urtelarako, Euskaltzaindiko Kisagoa onela dator :

Azkue : Euskaltzainburu.

Kanpion : Iker-sailburu.

A. Intza : Jaur-sailburu.

Intzagarai : Zadorlari.

Lakonbe : Gutunzai.

Altube : Diruzai.

Ta beste gai batzuek urango egunerako utzirik, oititzez amaitu degu batzaraldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1932'ko Ufirlaren 28'an.

Euskaltzain abek bildu gera : Azkue maipuru, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe

ta Elissalde eta Ormaetxea, Oleaga, ta Belaustegi-goitia urgazleak. Otoitzez asi da.

1.º Iztegiko lanetan jardun du Euskaltzaindiak.

2.º Izendegi berriaren lanak bakoitzak egin lezazkike ta gero Euskaltzaindiari agertu. Oraingo benipein Euskaltzaindiak ezin ager lezake bere gauza bezela.

3.º Azkue jaunak bere lan bat irakurri digu ta beste idazki batzuen berri eman digu zadorlariak.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldia.

Donostian, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1932'ko Azilaren 17'an.

Batzar ontan euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe eta urgazletatik Ormaetxea. Otoitz egin da.

1.º Izendegitzaz berriro itz egin da. Arlo ontan bakoitzak lan egin beza, gerora zerbait argitaratu edo erabakitzeko.

2.º Ormaetxea jaunak Iztegiaren aurreitz edo *prologoa* irakurri digu, ta ontzat eman da Altube jaunaren oarpide batzuek ezarrita gero.

3.º Aita Iraizoz-ek Leizañagaren *Bibliatik* berezitako itz batzuek, Aita Intzak irakurri dizkigu.

4.º Izendegi-lan bat asi ta idatzia baduela esan digu Ormaetxea jaunak ta zerbaitetan berituta gure *Euskera*-n, bertatik argitaratzea, Euskaltzaindiak onderitza.

5.º Aita Intzak berak bildutako itz batzuek irakurri